

# ART&MUSIC KONTZERTU BERRIAK 2026AN



## Art & Music Bilboko Guggenheimean

Guggenheim Bilbao Museoak Art & Music zikloaren edizio berria aurkeztu du 2026ko udaberrirako. Art & Music formatu bereziko proposamena da, zuzeneko musika, arkitektura eta arte garaikidea uztartzen dituen Museo Atrioaren bueltan, eta, bere helburuari leial, diziplinen eta emozioen arteko zubi-lana egiteko du paregabeko esperientzien bidez. Beste behin ere, zikloak Kutxabank izango du babesle.

**pablopablo** izango da oholtzara igotzen lehena. Hitzordua martxoaren 14an izango da, larunbatarekin. Artista madrildarra espainiar estatuko pop eszena berriko ahotsik bereizgarrienetako bat bihurtu da bere estilo dotore eta hunkigarriari esker. Apirilaren 11n, berriz, larunbatarekin baita ere, *desert blues* edo basamortuko bluesaren mito bizia den **Tinariwen** taldearen txanda izango da. Zikloari buru emateko, maiatzaren 9an, larunbata, Frantziako pop elektronikoaren erreferente den **Lewis OfMan** artistak eskainiko du emanaldia; haren doinu hedonista eta malenkoniatsuek bere belaunaldiko izen nabarmenenetako bat izatera eraman dute.

Art & Music programak erakusketak talde txikitik bisitatzeko aukera eskaintzen du, bertaratuak aretoetan barrena ibil baitaitezke 20:30etik aurrera, harik eta emanaldia 22:00etan hasi arte. Gainera, Museoak Atrioan bertan edariek eta pintxoekin prestatzen duen taberna-zerbitzua ere badago (kontsumizioak ez dira sarreraren prezioan sartzen).

pablopablaren kasuan, **sarreraren prezioa** 27€ izango da Museoaren

Lagunentzat eta 30€ gainerako publikoarentzat; Tinariwenen eta Lewis OfManen kontzertuetarako, aldiz, 31,5€ Museoaren Lagunentzat eta 35€ gainerako publikoarentzat. Sarrerak Museoaren webguneko jardueren atalean erreserbatzen dira: <https://www.guggenheim-bilbao.-eus/eu/jarduerak/art-music>

Museoaren lagunentzako aldez aurreko salmenta abenduaren 18an hasiko da, eta gainerako publikoarentzat, abenduaren 19an, 10:00etan.

[Erosi sarrerak](#)

